

Ereinek Koldo Izagirreren azken fruituak argitaratu ditu

‘Dumitru biluzik’ eleberria eta Irimarrarekin egindako azken bi album ilustratuak kalean dira

✍ Harri Fernández
📷 Ruben Plaza

DONOSTIA – Erein argitaletxeak Koldo Izagirre idazlearen azken sorkuntzak argitaratu ditu: *Dumitru biluzik* eleberria eta Irimarra taldearen Altzoko Handiari buruzko

azken bi album ilustratuak. Joxe Inazio Mujika Iraola editorearekin aurkeztu zituzten atzo, bai Izagirrek eta baita kolektiboko kide Karmele Gorroñok, aipatutako hiru obrak.

Eleberriari dagokionez, 2014an sortu zuen jatorri errumaniarreko protagonista euskaldunera itzuli da

idazlea. Dumitruk eguneroko oso pertsonala idatzi du: “Baimena eman digu hura irakurtzeko”. Egunerokoan protagonistak bere “suminak”, “ezinegonak” eta “ihes egin beharrak” kontatu ditu.

Idazleak nobela “ez arrunta” idatzi du, zuzena forman, laburra pasartee-

tan, baina “sasi-abangoardiatik” aldendu nahian. Dumitru biluztu egiten da azken eleberri honetan; identitateaz hausnartu du, baita maitasunaz eta adiskidetasunaz ere. Amaren figura oso presente dago Dumitruen bizitzan, hila delako harentzat. “Abortatu nahi izan ninduen baina ez zuen

lortu. Ez nintzen ni izan haurdun utzi zuena. (Ez dakit esaldi hau zenbat bider leundu nahi izan dudana, eta ez dut asmatzen)”. Hitz gogorrak dira Izagirrek Dumitruen egunerokoan idatzitakoak.

Beste tonu batean, aldiz, idatzi ditu *Altzoko Handia* eta *Kutixiren mehatxua* eta *Altzoko Handia* eta *Kutixiren bekaitza*. Aurreko lauak bezala, Irimarra taldeak eskuz margotu ditu ilustrazioak Izagirrek narraitutako “giroan” oinarrituta. Halere, idazleak, apaltasunez, bere testu guztiak kendu egin beharko lirakeela aipatu zuen atzo. “Irudiek beraiek bakarrik istorio bat kontatzen” dute-la adierazi zuen, gerora gehitzeko, haurrek ez bezala, helduek utzi egin diogula ilustrazioak “irakurtzeari”. ●



Malen Amenabar, Karmele Gorroño, Yolanda Larreategui eta Koldo Izagirre, atzo Donostian.

Heriotz ilustratua

‘BI TXANTXANGORRI HARITZ ADARREAN’ HELDUENTZAKO ALBUMA ARGITARATU DUTE

Ereinek, Peru Abarka Album Lehiaketan saritutako *Bi txantxangorri haritz adarrean* aurkeztu zuen atzo Donostian. Helduentzako sorkuntzara zuzendutako lehiaketa hau bi ataletan banatua dago, Inazio Mujika Iraola editoreak azaldu zuenez. Lehenik eta behin, aurkeztutako testu guztiatik bat aukeratzeko da. Ondoren, idazlan irabazlearen oinarriturik, ilustratzaileek proposamenak aurkeztu behar izaten dituzte. Gauzak horrela, aurtengo edizioan Yolanda Larreategiaren testua izan da irabazle, eta horren gainean egin ditu ilustrazioak Malen Amenabarrek.

Larreategiaren ipuin “itzelaren” gainean “metafora ilustratu” bat

egiten saiatu dela esan zuen atzo ilustratzaileak. Eta baita lortu ere: bikote bati buruzko istorio honetan, soinean kaiola bat daraman emakume adindu bat marraztu du Amenabarrek. Kaiolaren barruan, aldiz, emakumearen bikotea bidaia-ri, txori bat.

Istorioa heriotzari buruzko hausnarketatik iritsi zitzaioala azaldu zuen idazleak. Azken bost urteetan, hurbileko pertsonak hil baitzaizkio, senarra zuena tarteko. “Eta ni nola joango naiz?” galderak gordetzen duen bel- durretik hasi zen *Bi txantxangorri haritz adarrean* idazten. “Promesa batetik sortzen den istorioa” dela azaldu zuen Larreategi eta, jakina denez, promesak “konplutu egin behar dira”. – H. Fernández

Suspendidos de nuevo los conciertos de Amaia

Un positivo por COVID-19 hace que el programa doble previsto para este domingo se posponga sin fecha

DONOSTIA – El doble concierto de Amaia Romero previsto para este domingo en Donostia se ha vuelto a posponer hasta nueva orden. Al igual que ocurrió con su concierto previsto para el 11 de octubre, un positivo en COVID-19 en el equipo de la artista ha conllevado la suspensión de los dos espectáculos de este domingo. En este momento, los responsables de Kursaal Eszena no saben si reubicarán el concierto en la presente temporada o



Amaia Romero. Foto: Javier Bergasa

en la próxima. Amaia se encontraba de gira para presentar su disco *Pero no pasa nada*, producido por Santiago Motorizado. – N.G.

Cultura y ciencia, a estudio en Tabakalera

El centro donostiarra acogerá desde hoy el VI Encuentro de Cultura y Ciudadanía

DONOSTIA – Las conexiones e intercambios entre artes, ciencia, tecnología, naturaleza, cuidados y futuros serán las cuestiones en torno a las que se articulará el VI Encuentro Cultura y Ciudadanía, organizado por el Ministerio de Cultura y que comenzarán hoy en Tabakalera.

Durante tres jornadas, hasta el viernes 13, los participantes en esta reunión tratarán de hallar respuestas a preguntas como

“¿Por qué unir cultura y ciencia? ¿Bajo qué premisas y condiciones? ¿Cómo abordar la tecnociencia con perspectivas de cultura ciudadana? ¿Qué saberes y prácticas necesitamos, para qué problemas?”.

La directora general de Tabakalera, Ederne Ormazabal, el diputado foral de Cultura de Gipuzkoa, Harkaitz Millán, y el delegado del Gobierno en Euskadi, Denis Itxaso, inaugurarán estas jornadas.

Cultura y Ciudadanía es un programa que tiene como objetivo promover la participación ciudadana en el ámbito de la cultura, explicó Tabakalera en un comunicado. – Efe

Jon Cazenave guiará visitas por su muestra ‘Galerna’

DONOSTIA – El fotógrafo donostiarra Jon Cazenave ofrecerá visitas guiadas a su exposición *Galerna*, en la sala Kutxa Artegunea de Tabakalera, los días 19 y 26 de noviembre. La primera visita, el día 19 a las 18.30 horas, será en castellano y la siguiente el 26 a la misma hora será en euskera. Las visitas serán gratis pero con plazas limitadas. Por ello, será necesario apuntarse previamente en el teléfono 943 251 937, en la propia Sala o en el email hezkontza_artegunea@kutxa.kulturartegunea.eus. – E.P.